

Euskal AEko barne I+Gko gastua % 5,0 hazi zen 2024an

Langileak, dedikazio osoko baliokidetzan, % 4,6 hazi ziren

Ikerketa Zientifikoko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueren gastua % 5,0 handitu zen Euskal AEn 2024an, Eustatek landutako **behin-behineko emaitzen** arabera. Dedikazio osoko baliokidetzan I+Gn lan egiten zuten langileen kopurua % 4,6 handitu zen.

Egikaritze-sektoreka, enpresek % 4,2 igo zuten barne-gastua eta % 4,9 I+Gko jardueretarako langileen kopurua. Goi-mailako irakaskuntzan gastua % 6,5 hazi zen eta I+Gko langileen kopurua % 2,0. Azkenik, Administrazio Publikoaren sektorean, gastua % 9,6 handitu zen eta I+Gn lan egiten zuten langileen kopurua % 11,1.

Alderatzeko dagoen azken datuan, 2023koan, Euskal AEko BPGrekiko barneko I+Gn gastua % 2,16ra iritsi zen, Espainiakoa % 1,49koa izan zen bitartean.

I+Gko gastuaren eta dedikazio osoko langileen aldaketa, egikaritze-sektorearen arabera. Euskal AE. Aurrerapena. 2024

	2024/2023 (Gehikuntza %)	
	I+Gko gastua	DOB Langileak
Guztira	5,0	4,6
Enpresak eta IAGEP	4,2	4,9
Herri-administrazioa	9,6	11,1
Goi-mailako irakaskuntza	6,5	2,0

Data 2025eko Uztailaren 23a

Iturria: Eustat Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika

Metodologiari buruzko oharra: Eustatek I+Gko gastuek eta langileek 2024an izan zuten bilakaerari buruzko **Datuen Aurrerapena** egin du. Horretarako, aurreko urtean lortutako gastu osoaren % 87,4 suposatu zuten enpresak, goi-mailako irakaskuntza eta administrazio publikoa hartu dira kontuan, eta aurtengo azaroan behin betiko aurkeztuko diren emaitzen aurrerapena 2025eko uztailera aurreratzeko aukera eman dute.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62